



Hamaike

EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEAREN A

16. Zen. Urtarrila 2022

**MIKEL DE GREGORIO,
EUSKADIKO FUTBOL
FEDERAKUNDEKO
KIROL ZUZENDARI
BERRIA**

IDEIAK OSO ARGI



**ATHLETIC CLUB,
SUPERKOPAKO
TXAPELDUNORDEA**



**WALKING FOOTBALLEKO
EUSKAL SELEKZIOA
ABIAN DA**



**JUDITH FRAIZ ARETO-
FUTBOLEKO LEHENENGO
MAILAN DEBUTA EGIN ZUEN**

10 kutxabank **k**

KUTXABANK
10 URTE ETA 170 BETE DITU
EUSKAL FINANTZA TRADIZIO ONENAREN EREDU.



EUROPAKO BANKUA DA,
ESTATUKO
KAUDIMENTSUENETAKOA.

ITURRIA: EUROPAKO BANKU AGINTARITZA.



BERE DIBIDENDU OSOA
EUSKADIKO
GIZARTE PROIEKTUETARA
BIDERATZEN DUEN BAKARRA DA.



ETA HAU DENA,
HEMENDIK.



3	EDITORIALA
4-5	ELKARRIZKETA
6-8	LEHEN MAILA
9-10	BIGARREN MAILA
11	RFEF 1. MAILA
12-13	BERRIAK
14	RFEF 2. MAILA
15	RFEF 3. MAILA
16-17	EMAKUMEEN FUTBOLA
18-19	OINARRIZKO FUTBOLA
20-21	ARETO FUTBOLA
22	BERRIAK

©:

EUSKADIKO FUTBOL
FEDERAKUNDEA
FEDERACIÓN VASCA DE FÚTBOL

Erredakzio Batzordea
Comité de Redacción
Javier Landeta, Kepa Allica,
Haritz Gallastegi, Neil Ganzabal
y Fran Rodríguez

Koordinaketa. Coordinación
Disenu eta Maketazioa
Diseño y Maquetación
Cantera Deportiva S.L.
Argazkiak. Fotografías
Federación Vasca de Fútbol

HAMAIKA
Euskadiko Futbol Federakundea
Julian Gaiarre 48 bajo
48004 BILBAO
Tfnoa: 94 473 19 00
info@euskadifutbol.eus
Depósito legal: BI-581-2014

Colaborador
Laguntzailea 

Hamaika ez da bere laguntzaileen
iritziaz erantzule egiten
Hamaika no se hace responsable
de la opinión de sus colaboradores/as

EDITORIALA

NORMALTASUNA BERRESKURATZEKO URTEA

Zuei guztiei, bereziki euskal futbolarekin modu batera edo bestera konprometituta zaudeten guztiei, 2022a urte aparta izatea opa dizuet.

Bi urtetan baldintza normaletan lan egitea galarazi digun pandemiak, denboraldi honetan normaltasun egoerara itzultzen uztea nahiko nuke, gure zelaietan ikusleak behin betiko berreskuratuz, klubek, entrenatzaileek, epaileek eta jokalariek egiten duten lanaz gozatzeko. Eta gainera, 11 futbolak eta areto futbolak, eskolakoak zein federatuak, COVID-19aren ondorioz gure kirola egiteko orduan parentesia egin duten jokalaria berreskuratu ahal izatea espero dut.

Oso garrantzitsua da gure euskal futboleko belaunaldi berriek gertuko etorkizunean eta epe luzean jokalaritza gabeziarik ez pairatzea. Guztiok zarete oso beharrezkoak gure futbolak Estatuan duen maila handiari eusteko, maila gazteenetatik hasi eta maila profesional gorenetaraino. Izan ere, gure erkidegoko biztanleen ehunekoarengatik legokigukeena baino askoz proportzio altuagoetan gaude, bai kalitateari, bai kuantitateari dagokienez.

Gure Lurralde Federazioen, klubien, entrenatzaileen, epaileen, kirolarien eta Euskadiko futbola erreferente bilakatzen duzuen hainbat eta hainbat kolaboratzaileen lan handiaren emaitza da hori. Euskadiko Federazioa, engranaje horren beste elementu bat den aldetik, guztion eskura dago, mugitzen garen ekosistema indartsu honetan sortzen diren sinergiak katalizatuzko. Eskerrik asko guztioi!

Javier Landeta.

Euskadiko Futbol Federakundearen Presidentea.



MIKEL DE GREGORIO: "JENDE ASKOREN ERREFERENTEA GARA, HERRI BATENA"

Neil Ganzabal

Zer da kirol-zuzendari bat eta zer funtzio ditu?

Kontua da kirol-egitura pixka bat antolatzea eta entrenatzaileek, taldeek eta federazioak behar dituzten baliabide teknikoak ematea, ahalik eta hobekien lehiatu eta entrenatu ahal izateko. Eta hiru lurralde-federazioekin batera lan egitea.

Zer alde dago klubaren eta federazioaren artean?

Eskualde-mailako klub batean, askotan klubek dituzten egiturak oso mugatuak izaten dira. Federazioa bezalako toki batean, egitura garatuago bat dago, hobetu daite-

keena, baina aukera duzu kirol-zuzendariari dagozkion lanetan aritzeko.

Nolakoak izan dira esperientzia horiek gizonezkoen areto-futboleko 16 urtez azpiko eta 19 urtez azpiko selekzioekin eta emakumezkoen futboleko 15 urtez azpiko eta 17 urtez azpikoekin?

Oso onak. Jendea gu ordezkatzeko ilusioarekin dator, eta ahalik eta baliabide onenak eman nahi dizkiegu, dituzten ilusio, gogo, ezagutza eta futbola erakutsi dituzten.

Zein dira kirol-zuzendari batek Euskadiko Federazioan dituen helburuak?

Lehiaketari begira, helburua da ahalik eta goren iristea eta parte hartzen dugun leku guztietan irabaztea. Ilusioa eta jende askok nahi duena ordezkatzeko dugu, eta ildo horretan ez digu balio edozein prezio irabazteak. Gure gizartearen parte diren balioak ordezkatu behar ditugu.

Egungo egoerarekin, atzeratu egin da jokatu behar zen lehen txapelketa. Nola eragiten dio txapelketaren plangintzari eta prestakuntzari?

Entrenamendu asko egin ditugu areto-futboleko selekzioekin, eta, hitzordu pare baten faltan, lehiatzeko prest geunden. Egoera dela-eta, hala behar du, baina zaila da beste egun baterako berriz prestatu behar izatea, ziur jakin gabe beteko den ala ez.

Zer puntu landu behar dira epe labur, ertain eta luzera?

Epe laburrean, COVID-19ak sortzen duen ziurgabetasun horretara egokitu ahal izatea. Epe motz-ertainean, garrantzitsua da selekzioen eguneroko bizitza euskalduntzea, jokalarien, entrenatzaileen eta horren parte garenon artean, erreferente izateko. Eta epe ertain-luzera, selekzioaren bitartekoak eta lan egiteko modua hobetzea.

5 #KIROL ZUZENDARIARI ELKARRIZKETA

Zein dira iritsi zinetik ikusi dituzun indargune edo alde onak?

Selekzio gisa dugun sendotaunik handiena da gogoia, jendeak etortzen denean eta parte hartzen duenean duen ilusioa, herri baten erreferente sentitu nahi izatea, parte hartu nahi izatea, egon nahi izatea... Orduan, kanpoko jendearekin hitz egiten duzunean, nik ere uste dut ikusten dela jendeak hona etortzen denean duen sentimendu hori, beste leku batzuetan ez dagoena.

Zein norabidean doa Euskadiko Futbol Federazioaren proiektua?

Nire ustez, Federazioa lanean ari da maila gorenean eta ahalik eta selekziorik onenen aurka lehiatu ahal izateko. Eta guk, bitartean, zera egin behar dugu, egokitzen zaigun leku bakoitzean hori nahi dugula erakutsi.

Zure ustez, zein dira etorkizunari begira hazten jarraitzeko eman beharreko hurrengo urratsak?

Entrenamendu eta lehiaketari begira, gure inguruko klub profe-



sionalen egitura eta bitartekoetara hurbildu behar dugu, haiek bezala lan egin ahal izateko eta ahalik eta lekurik onenetan modu ofizialean lehiatu ahal izateko.

Zein da selekzio desberdinetan sortu nahi den nortasun-ezaugarria? Jokoari eta

balioei dagokienez.

Jokoari dagokionez, ez dut uste oso eredu zehatzik izango dugunik. Helburua da ahalik eta hobekien lehiatzea, eta, askotan, ditugun belaunaldien eta futbolari-moten arabera izango da, beti ez baitira berdinak. Hautatzaileraren helburua da egokitzen zaion selekzioarekin egokienak iruditzen zaizkionak hautatzea, ahalik eta hobekien lehiatzea eta gure aukera guztiak baliatzea. Nortasunari edo izaerari dagokionez, gure gizarteak dituen balioak transmititu nahi ditugu pixka bat. Euskaraz bizitzea, aurkariarekin errespetuz jokatzeko beti, azken minutura arte lehiatzea, jende guztia zelaitik edo kantxatik irten dadin %100 emanda, leporatzeko moduko ezer eduki gabe eta harro sentituta.

Zein dira Mikel De Gregorioren proiektuaren oinarriak abentura berri honetan?

Azken batean, jende askoren erreferentea gara, herri batena. Orduan, azkenean, garrantzitsua da jende hori harro sentitzea. Hori egunero lan egiten laguntzen dizun gazetako bat da.

ECOBBOX berria

alzola

Nueva ECOBOX



basque water

ECOBBOX de ALZOLA			
Respecto a una botella de PET de Alzola Basque Water de 33cl.			
71%	↑	Materiales renovables	
92%	↓	Material de envase	
69%	↓	Consumo de agua	
86%	↓	Huella de carbono	

IMPACTO AMBIENTAL DEL ENVASE POR CADA 33cl			
ECOBBOX	9,8 gr CO ₂ eq*	100%	
BRIK	57 gr CO ₂ eq*	483%	
LATA	84 gr CO ₂ eq*	755%	

* Gramos de CO₂ equivalente, unidad que aglutina las emisiones de gases de efecto invernadero.

Datos del estudio de Ecoisefo elaborado en colaboración con Inred, Inhoja y Ecoembas.



ALAVESEK GORA EGIN NAHI DU BIGARREN ITZULIAN

Alaves taldea ez da oso ondo ibili ligako lehen itzulian, eta jaitsierako postuetan daude. Gainera, nahiko azkar kaleratu zuten Kopatik.

Iker García



**JOSE LUIS
MENDILIBAR,
ALAVESEN
AKUILU**

Urte amaieran, Javier Calleja kendu zuten kargutik Alavesen, eta Lehen Mailan esperientzia duen teknikari batek hartu du haren lekua, Jose Luis Mendilibarrek. Bi berdinketa lortu ditu taldearen gidaritzan hartuta aurrez aurre izan dituen bi derbietan.

Denboraldi zaila ari da izaten babazorroentzat, jaitsierako postuetan baitaude bete-betean. Arabarrek 16 punturekin amaitu zuten lehen

itzulia, hemeretzi partidatan, eta gol gehien jaso dituzten taldeetako bat izan da (30 guztira). Lehen itzulia amaitzean lortutako puntuaziorik txarrena izan du, beraz,

Alavesek. Gainera, talde baba-zorroak porrot egin zuen Errege Kopako bigarren kanporaketan, Linaresen aurka 2-1 galdu ondoren.

liberygrupo.com
f t i

VTC Service
libery

Premium Taxi

- Transfer aeropuerto-estación-hotel
- Tours turísticos
- Eventos / Galas / Congresos
- Compañías aseguradoras

BUS Service
libery

liberygrupo.com
T: 945 259 300

- Alquiler de autocares y microbuses
- Transporte escolar y de empleados
- Viajes turísticos / Agencias
- Eventos / Congresos
- Clubes deportivos / Aficiones



ATHLETICEK AURRERRA EGIN NAHI DU, EUROPAN SARTZEKO

Zuri-gorriak irregular dabilta lehian, eta dagokionean gola egiteko zailtasunak dituzte. Horren ondorioz, ez daude Europako postuetan.

Iker García

Denboraldi ona ari da egiten Athletic, Europarako lehian sartzeko postuetatik gertu, baina ez du lortzen lehen toki horietan kokatzeko



hainbat garaipen kateatzerik. Izan ere, bi garaipen baino ezin izan dituzte lortu jarraian, denboraldiko

**SUPERKOPAKO
FINALEAN
BERRIRO, BAINA
TITULURIK GABE**

Koparen aurreko edizioko finalista zen aldetik, talde zuri-gorriak aurtengo Superkopa jokatu zuen Dubain, urtarrilaren hasieran. Partida handi batean eta behetik gora etorrira Athleticek Atletico Madril kanporatu ondoren, finalean galdu egin zuten Real Madrilen aurka (2-0).

hainbat unetan. Gainera, lehen itzulian berdinketa gehien lortu dituen taldea ere Athletic izan da (9 berdinketa lortu dituzte jokatutako 19 partidetan).

EL HOTEL GRAN BILBAO
es una factoría de emociones
donde te invitamos a formar
parte de nuestro Lifestyle, con
un estilo de vida saludable,
deporte y arte en cada rincón
del hotel.

Nuestras habitaciones están valoradas por la comodidad, luminosidad y el descanso que necesitas. Además, podrás disfrutar de nuestro desayuno buffet con cocina en vivo y con recetas healthy diseñadas por una nutricionista. En nuestro restaurante podrías disfrutar de la gastronomía local, sabores internacionales y de opciones saludables, así como de menús especiales para celebraciones.

HGB
HOTELGRANBILBAO



#HotelGranBilbao @HotelGranBilbao

Calle Indalecio Prieto 1 | 48004 Bilbao | 944 32 85 75 | hotel@hotelgranbilbao.com

REALAK IAZKO DENBORALDI BIKAINA ERREPIKATU NAHI DU

Donostiako taldea gogor ari da lehian, hiru fronteetan: ligan Europa sartzeko borrokan, Kopan txandaz txanda aurrera eginez, eta Europako Ligako final-hamaseirenetan.

Iker García



REALAK LEIPZIGEN AURKA NEURTUKO DITU INDARRAK EUROPAKO LIGAN

Talde txuri-urdinak taldekako fasean sailkatzea lortu du, bigarren tokian geratu baita, Monacoren atzetik. Final-hamaseirenetako zozketari jarraiki, donostiarrek Leipzig izango dute aurkari otsailean, Txapeldunen Ligan hirugarren gelditu zena bere taldean. Imanol Alguacilek zuzentzen dituen mutilek etxean jokatu dute itzulerako partida (otsailaren 24an).

Lehen itzuli ona egin du talde donostiarrek, eta Iazko denboraldi handiaren antzeko bidea ari da egiten. Imanol Alguacilek zuzentzen duen

taldeak 30 puntu lortu zituen lehen itzuliko 19 partidetan, eta lider izan ziren 5 jardunalditan, nahiz eta azken partidetakoa bolada txarrak (ez zuten partida bakar bat

irabazi) zazpigarren tokira atzeratu zituen. Postu horietan gora egiten saiatuko dira berriro bigarren itzulian, Europarako lehian sartzeko.

IPARBUS

ISO 9001
BUREAU VERITAS
Certification

Member of
BASQUE LUXURY

IPARBUS
VIP SERVICES

- TURISMOS DE ALTA GAMA
- MINIVAN VIP hasta 7 plazas
- MINIBUS VIP hasta 24 plazas
- AUTOCARES VIP hasta 47 plazas

943 491 801 | 606 305 143

www.iparbus.com

AMOREBIETA GOGOTSU, FUTBOL PROFESIONALEKO DEBUTEAN

Gogor lehiatu da guztiekin Zornotzako taldea lehen itzulian, eta hiru talde klasiko garaitu ditu: Malaga, Valladolid eta Almeria.

David Novo

Argi utzi du Amorebietak edozein talderi egin diezaiokeela aurre, baina gertakari batzuek ez diote utzi SmartBank Ligan egin duen debutaz behar bezala gozatzen.



Talde urdinak jaitsierako postuetan amaitu zuen lehen itzulia, salbaziotik lau puntura. Iñigo Velezen taldeari ihes egin diote puntuek

URRITXEN BERRIRO, ERREGE KOPAREN BILA

Lehen kanporaketan Bartzelonako Europa kanporatu ondoren, Almeriaren aurka jokatu zuen Amorebietak etxean, final-hamaseirenetan. RFEFk antolatutako lehiaketa zenez, Urritxen jokatu ahal izan zuten urdinek, eta, hala, beren zaleekin bat egin ahal izan zuten, Espainiako Ligak lehiaketa erregularrerako ontzat eman ez zuen zelaian.

partidaren azken unean askotan, eta ez dute zorte handirik izan VAR-a erabili behar izan denean ere. Hala ere, zornotzarrek ez dute partidarik galdu bi gol baino gehiagotatik.

EIBAR LEHEN MAILARAKO BIDEAN

Hasierako ezustekoaren ondoren (bi porrot liga hasieran), zuzeneko igoerako postuan dira eibartarrak, lehen 21 partiden ostean.

David Novo

Eibar taldea estatuko futboleko zilarrezko mailara itzuli zen zazpi urteren ostean, baina bisita laburra izango zen uste sendoa zuten; formalitate bat, besterik ez. Bide horretatik doa talde gorri-urdina,



liga-txapelketaren erdi parera bigarren postuan iritsi baita; zuzenean itzuliko litzateke elitera postu horretatik horrela, igoerako play off-ak saihestuz, hirugarren, laugarren, bosgarren eta seigarren

ETXEKO GARAIPENEN ERREKORRA 1. ETA 2. MAILETAN

Gaizka Garitanok gentrenatzen duen taldeak Ipuruan 7 partida jarraian irabaztea lortu du: bere futbol-ibilbide profesionalaren historiako boladarik onena. Hauek izan dira bolada handi horren biktimak: Sporting de Gijón (3-2), Ibiza (3-1), Almeria (1-0), Cartagena (2-1), Oviedo (1-0), Alcorcón (2-1) eta Girona (4-2).

sailkatuen artean. Hamar jardunaldi egin zituzten gipuzkoarrek galdu gabe (3.etik 13.era); Stoichkov dute jokalaria erabakigarrietakoa erasoan, eta SmartBank Ligako goleatzaile nagusia izateko hautagaietako bat da.

REALA B-K ORDAINDU EGIN DU FUTBOL PROESIONALEAN DEBUTATZEAGATIKO BIDE-SARIA

Jauzi hirukoitza zela esan zuen Xabi Alonsok filiala 2. A mailan sartzea, eta ez zebilen gaizki misterra. Ez dabil ondo Sanse lehia eta jokoan.

David Novo



Kategoria hau krudel ari da jokatzen azken urteetan filialekin. Eta, Sanserentzat, ez da salbuespena izaten ari, sei hamarkadatan kan-

poan egon ondoren Bigarren Mailara itzuli den honetan. Xabi Alonsok entrenatzen duen taldeak bi gol baino gehiago bi alditan jaso

JOKALARI GEHIEN ERABILI DITUEN TALDEA

Hainbat minutuan jokatzeke aukera eman die Xabi Alonsok Real B osatzen duten 22 jokalariei, eta baita Jon Pachecori eta Robert Navarrori ere, lehen taldearen ohiko dinamikan; halaber, jokatzeke aukera izan dute Real C taldeko zortzi futbolarik. Guztira, 32 futbolari aritu dira Sansen denboraldian, eta horietatik 28 titular izan dira inoiz.

ditu soilik, eta ondo jokatu du hainbatetan, baina partida bakarra irabazi du Reale Arenan, debutekoa, eta sei porrot jaso ditu bata bestearen atzetik.



Goco Tour

- **Viajes: NACIONAL e INTERNACIONAL**
- **BODAS, CELEBRACIONES, CONGRESOS, etc.**
- **VEHÍCULOS DE: 7, 18, 22, 29, 37, 40, 55, 59, 71 PLAZAS**
- **ADAPTADO MINUSVÁLIDOS (PMR)**
- **SERVICIO DE TAXI**

Barrio Arregui | Polígono Cóndor
Edificio C | 48340 AMOREBIETA
T. (+34) 94 630 82 50
24 HORAS: T. 665 295 623
E-mail: gocotour@gocotour.com
Web: www.gocotour.com

ZURIA ETA BELTZA: REAL UNION ETA BILBAO ATHLETIC, SORTU BERRI DEN RFEF LEHEN MAILAN

Jardunaldiz, jardunaldi, aurrerago iritsi dira Irungoak, eta igoerako play off-etan sartu nahi dute; filiala RFEF Bigarren Mailara ez jaisteko borrokan buru-belarri sartuta dabil.

David Novo

RFEF Lehen Mailan ari dira jokatzeko bi euskal ordezkarik denboraldi honetan, Real Union eta Bilbao Athletic, urte honetatik aurrera estatuko futboleko hirugarren kategorian. Espainiako Futbol Federazioak sortutako maila honek jauzi kualitatibo bat adierazten du, bai profesionalizatzeari begira eta bai lehengo Bigarren B mailarekiko dakarren kirol-exijentziari begira.

‘Emery familiak’ hartu zuen Real Unionen gidaritzaz iazko udan, Gipuzkoako talde historikoa sendotzeko eta indartzeko gogoz. 1,6 milioi euroko hasierako aurrekontuarekin, irundarrek mailari eustea zuten helburu; baina Aitor Zulaikak entrenatzen duen taldearen dinamika irabaztea da azken hila-beteotan, eta, horri esker, zuri-bel-tzak sailkapeneko gune nagusiko taldeekin parez pare dabil. Finen, Real Unionek bosgarren postuan amaitu du lehen itzulia, eta SmartBank Ligara igotzeko promozioan sartuko litzateke horri



Real Unión



Bilbao Athletic

outsiz gero.

Bestalde, Bilbao Athleticcek play off-a jokatu zuen iaz, baina nahiko larri dabil denboraldi honetan. Zuri-gorriak ondo hasi baziren ere, astez aste, beheko postuetan sartu dira, eta gehiagotan egon dira jaitsierako postu-

etan gune horretatik kanpo baino. Eraitzen dinamika txarraren ondorioz, Bilboko klubeko zuzendaritzak Imanol de la Sota entrenadorea kargutik kendu zuen, eta Patxi Salinas ekarri zuen Basconiatik, Athleticen bigarren filialetik.


Coca-Cola

WALKING FOOTBALLEKO EUSKAL SELEKZIOA ABIAN DA

Walking Footballeko Euskal Selektzioak, Euskadiko Futbol Federazioaren laguntzarekin sortu berri denak, urriaren 30ean egin zuen debuta Lezamako instalazioetan Ingalaterraren aurka. Bere ibilbidean selektziorik indartsuena dela uste da, eta oraindik ez da garaitua izan. 50 urtetik gorako eta 60 urtetik gorako kategoriei dagozkien bi partida jokatu ziren. Horrela, Walking Footballeko Euskal Selektzioa 2022ko maiatzerako prestatzen hasi zen, orduan parte hartuko baitu FIWFAk Manchester-ren antolatutako



selektzio nazionalen Walking Football Munduko Lehen Txapelketan.



ARETO-FUTBOLEKO EUSKAL LIGAREN ONLINE AKTAK ABIAN

Euskadiko Futbol Federazioak online akta jarri zuen abian Areto Futboleko Euskal Ligaren txapelketarako gure webgunearen bidez. Txapelketako 7. jardunalditik, epaileek beren izendapenari dagokion partidaren online akta bete dute. Horrela, kategoria guztiek aukera dute akta online egiteko.

400 KIROL ENTITATE BAINO GEHIAGO MOBILIZATUTA KUDEAKETA AURRERATUAREKIN

2007an abian jarri zenetik, 3K Programak Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako 400 kirol-erakunde baino gehiagoren kudeaketa hobetzea ekarri du. Programa hau hiru Foru Aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak antolatzen eta diruz laguntzen dute, eta EUSKALITek koordinatzen du.

50-70 erakunde inguruk parte hartzen du urtero kudeaketa hobetzeko 3K programan. Hauek dira programaren hartzaile nagusiak: kirol-federazioak, kirol-klub eta elkarteak, ikastetxeak, IGEak, udal-etako kirol-patronatuak edo -institutuak eta kirol-enpresak edo instalazioak.



Jaurlaritzak Kudeaketa Aurreratuaren arloan ematen dituen sarien eskemako lehenengo errekonozimendua da eta entitaterik aurreratuena aitortzea eta Euskadiko kudeaketa praktikaririk onenak identifikatzea du helburu. Programa honi esker, 50 ki-

3K Programaren hiru urteak gainditzen dituzten kirol entitateek Kudeaketa Aurreratuari Diploma lortzeko aukera izango dute; hori Eusko

rol-erakundek baino gehiagok Kudeaketa Aurreratuaren Diploma lortu dute orain arte. Gainera, entitate hauetako batzuk haien kudeaketa sistemak hobetzen eta aurrera egiten jarraitu dute eta hiru kirol entitatek Kudeaketa Aurreratuari Brontzezko A lortu dute.

3K programak 3 urteko hobe-kuntza ibilbide bat proposatzen du, non entitateek, prestakuntza saioren eta tailer praktikoaren bidez, beren erakundeetan kudeaketa aurreratuaren funtsezko alderdi eta praktika onak garatzen baitituzte.

Prestakuntzan hainbat gai lantzen dira, hala nola strategiaren definizioa eta urteko planak, antolakuntza-sistema, bezeroen kudeaketa, pertsonen kudeaketa, kudeaketa ekonomikoa, berrikuntza eta gizarte-konpromisoa.

Erakunde antolatzaileak urriak 28an 4 urterako kolaborazio-protokolo bat sinatu dute, Europar Asteko 3K Programaren ekitaldia baino lehen, 3K Programari jarraitasuna emateko eta kirol sektorea bere kudeaketaren eta lehiakortasunaren hobekuntzan laguntzen jarraitzeko.

EMAKUMEZKOEN KATEGORIA NAZIONALEN BANAKETA BERRIA 2022/23 DENBORALDIRAKO

2022/23 denboraldia aldaketa handikoa izango da emakumezkoen futbolekoan, RFEFk egin nahi duen berregituraketa dela-eta. Kategoria berri bat sortuko da egungo Reto Iberdrolaren eta Lehen Maila Nazionalaren artean.

Primera Iberdrolak izena aldatu, eta 'emakumezkoen futboleko RFEFko Lehen Maila' deituko da eta 16 taldek osatuko dute. Kategoria horretan jarraituko duten 14 taldeez gain, Reto Iberdrolatik igotako bi taldeak egongo dira.

Kategoria berria 'emakumezkoen futboleko RFEFko Bigarren Maila' deituko da, eta 16 taldek osatuko dute. Reto Iberdrolako multzo bakoitzeko 2. eta 7. postuen artean sailkatutako 12 taldeak eta Primera Iberdrolatik jaitsitako 4 taldeak egongo dira hor.

Emakumezkoen futboleko hirugarren kategoriak 'emakumezkoen futboleko RFEFko Hirugarren Maila' izena izango du. Guztira 32 taldek osatuko dute, 16 taldeko bi multzotan banatuta. Hirugarren mailan jarraituko dute Reto Iberdrola honetako 14 taldeek, hain zuzen, 8. eta 14. postuen artean sailkatutakoek, eta Lehen Maila Nazionaletik igotako 18 taldeak ere egongo dira.

Azkenik, emakumezkoen futboleko Lehen Maila Nazionala egongo da, 16 taldetako 6 multzok osatua. Guztira 96 taldek hartuko



dute parte. 80 talde Lehen Nazional honetakoak izango dira, 4 Reto Iberdrola honetatik jaitsi ondoren iritsiko dira, eta 12 denboraldi honetako lurralde-kategoriatik igoko dira.

FEDERAZIO BATZORDEAK

Legegintzaldi honetan, Euskadiko Futbol Federazioaren Zuzendaritza Batzordeak federazio-batzorde hauek sortu ditu:

- Berdintasun eta Gizarte Erantzukizun Korporatiboko Batzordea.
- Euskara Batzordea.
- Araudi eta Erregelamenduen Batzordea.
- Gardentasun, osotasun, balio eta gobernu onaren Batzordea.
- Kirol Batzordea.
- Informatizazio Batzordea.

Helburua da lanean jarraitzea eta aurrerapausoak ematea, garrantzitsutzat jotzen diren arlo eta gaitan. Era berean, etorkizunean federazio-batzorde berriak sor litezke, garrantzitsutzat jotzen diren gaitan aurrera egiten jarraitzeko.

EFF-FVFK BALOI OFIZIAL BAT EZARRI DU BERE LEHIAKETETARAKO

Lehen aldiz, edozein kirol eta arlotako federazio-lehiaketa gehienetan bezala, Euskadiko Futbol Federazioak erabaki zuen egokia zela baloi-eredu uniforme bat ezartzea.

Horretarako, eskal erakundeak 10 baloi eman zituen doan 2021-2022 denboraldian lehiatzeko. Aukeratutako baloi-eredua ADIDAS markako TIRO COMPETITION izenekoa izan zen, eta EFFk antolatutako lehiaketetan parte hartutako klub guztiei eman zitzaizkien.

Gainera, akordio bat lortu zen Adidasekin, klubek baloi gehiago erosteko Federazioarekin adostutako prezioan.

REALA II. MULTZOKO GORENEKO POSTUETAN, LAN ERDIETARA IRITSITA

Gernika eta Sestao River txandaka dabiltza play off-eko postuetan; Arenas, berriz, erdialdeko postuetan gelditu da, hainbat geldialdiren eta atzerapenen ostean.

David Novo

RFEF Bigarren Mailaren historiako lehen denboraldiak Euskadiko lau parte hartzaile ditu II. Multzoan, Kantabriako, Nafarroako eta Errioxako beste zenbait taldeekin batera. Arenas Bigarren B Mailan zebilen iaz, eta Real Sociedad C, Gernika eta Sestao River taldeek Hirugarren Mailatik egin zuten jauzia. Oraingoan, bigarren filial txuri-urdina ari da ondoan, eta lehen itzulia amaitzerako, lehen multzoko liderra izatera iritsi da.



Gernika eta Sestao River igoerako promozio-postuetan txandakatu dira, eta Arenas hotz geratu da, COVID-19a dela eta hainbat atzerapen eta Gabonetan bi asteko geldialdia izan ostean; beraz, taularen erdialdean 'trabatuta' geratu da.

GERNIKAK SENDO EGIN DIO AURRE EIBARRI KOPAN

Gernikak Errege Kopako lehen kanporaketa jokatu zuen iazko kanpainako Hirugarren Mailako euskal taldeko txapeldun gisa, eta Eibarren aurka jokatu zuen Urbietan. Bizkaitarrek gogoz bete zuten beren lana, eta, zenbait unetan, estualdian jarri zituzten eibartarrak, nahiz eta azken horiek garaitu zuten azkenean, gol bateko aldeaz (1-2).

HEMEZORTZI TALDEETATIK HAMAIAK, SARIA EDO ZIGORRA

RFEF Bigarren Maila da denboraldi bakoitzean talde aldaketa gehien izango dituen estatutako futbol-kategoria, federazioak profesionalak ez diren txapelketak berregituratu ondoren. II. Multzo honetan, lehenengoa automatikoki igoko da, eta 2. postutik 5.era bitartekoek play off bat jokatuko dute. Behealdetik, 13.ak play out bat jokatuko du, eta 14. postutik 18.era bitartekoak jaitsi egingo dira.

 **Sport·designer**




GRUPOCAMPUS

precio / prezioa
9,90 €

Diseño de ejercicios de entrenamiento, simulaciones de situaciones de juego en movimiento, creación de jugadas de estrategia, creación de formatos de convocatorias, books de ejercicios y estrategia, acceso a contenidos y formatos on-line, etc...

Disponible en Euskera – Castellano.

Más información: www.sport-designer.com



PORTUGALETE NEGUKO TXAPELDUNA, ALAVES B ZELATAN DUELA

Portugaletek goren-gorenean amaitu zuen txapelketako lehen itzulia, ia hasieratik lider izan zen Alaves B taldea azken unean gaindituta.

David Novo



Portugaletek irabazi zuen neguko txapelkunaren ohorezko titulua, lehiaketaren erdira RFEF Hirugarren Mailako euskal multzoko lider lekuan iritsia. Portugaleteren atzetik bi puntura (denboraldi honetako bost kategoria nazionaletan, irabazitako partiden boladarik handiena dagokio), Alaves B geratu zen, lehen hemeretzi jardunaldietako askotan lider lekuan egon dena. Ezkerraldekoek zuzenean egingo zuketena jauzi hurrengo kategoriarara, eta, aldiz, arabarrek igoe-

rako fasea jokatu beharko zuketena Beasain (3.a), Barakaldo (4.a) eta Durangoko Kulturala (5.a) taldeekin, liga partiden erdiarekin amaitu izan balitz. Lau horietako batek soilik jokatu ahal izango du RFEF Bigarren Mailan, kanporaketa bat gainditzen badu gero beste autonomia-erkidego bateko talde baten aurka.

Berdintasuna izan da nagusi txapelketaren lehen zatian, eta, praktikan, ligako taldeen ia erdiak aukera luke horren arabera play-off-a jokatzeke; aldiz, beste erdia

ELX LEIOAN IZAN ZEN KOPAKO PARTIDAN, ETA HERNANI KANPOAN GERATU ZEN

Federazio Kopako finalerdietara iritsi zen Leioa, eta, hala, Errege Koparako txartela lortu zuen. Txapelketa horren barnean, Elx taldearen aurka jokatu zuen lehen txandan Sarrienan. Bestalde, Hernani zen eskualde mailako euskal ordezkaria, baina galdu egin zuen Galiziako Victoriaren aurka, aurreko kanporaketan.

denboraldi honetan kategoria galduko duten sei taldeetako bat izan ez dadin saiatuko da desesperatuki bost talde, RFEF Bigarren Mailara bi euskal talde igoko balira.

Ez zen inor iritsi partidarik galdu gabe lehen itzuliaren amaierara Hirugarren Mailako 4. Multzoan, baina nabarmendu beharra dago Anaitasunaren dinamika Txerloian, ez baitu galdu lehen hamar partidetan etxean jokatu duenean; edo Beasain, kanpoan, gutxienez segidako hamar partidatan esku-ratu baitzituzten puntuak.



DASTATU GURE ARDOAK.
¡EGIN ZURE ESKAERA GAUR
BERTAN!

EXPERIMENTA NUESTROS
VINOS. ¡HAZ TU PEDIDO
HOY MISMO!

arral97.com

ARDO BANATZAILEAK
DISTRIBUIDORES DE VINO

Mallabia, Bizkaia
943 17 60 75
arral@arral97.com

REALA SENDO DABIL AZPITXAPELDUN POSTUAN, ATHLETIC BORROKAN ARI DA EUROPAN SARTZEKO, ALAVESEK AURPEGIA ERAKUTSI DU, ETA EIBAR SUFRITZEN ARI DA

Maila bikaina ari dira erakusten donostiarrak, bilbotarrak eta eibartarrak. Nabarmentzekoa da Realak egin duen lana, bigarrena baita, Bartzelonaren atzetik.

Txemi García

Lehen itzulia amaitu ondoren, harro egon gaitzke gure taldeek Iberdrola Ligan bete duten lekuaz.

Bikain ari da Realak, eta, horri esker, bigarren postua lortu, eta ia bermatua du Europarako txartela, hondamendiren bat gertatzen ez bada behintzat. Natalia Arroyoren taldeak sei garaipen eskuratu zituen segidan hasieran, eta lider tokietan dabil, Bartzelona aurretik duela, azken hau gainerakoen mailatik gora dagoela erakusten ari baita berriro.

Indartsu ekin zion Athleticek: behin bakarrik galdu zuen zazpi partidatan. Horri esker, goialdeko postuetan kokatu zen, eta Europar sartzeko asmoei heldu ahali izan zuten horrela, nahiz eta, une batzuetan, puntu garrantzitsuak galdu dituen bidean. Iraia Iturregiren jokalariek Lezaman fidagarriagoak izango direla espero dute, onenekin borrokatzeko aukerarik ez galtzeko.

Alaves iazko denboraldian igotzen, eta Mikel Cresporen taldearen erantzuna ezin hobea izan da, taularen erdigunean finkatu baita, eta gertuago dago Europatik jaitsierako postuetatik baino.

Eibarri doakio okerren. Ana Junyenten taldeak ez du lortu jaitsierako postuetatik urrutzerik. Espero dute aldatuko dela hori bigarren itzulian.



Real Sociedad

ATHLETICEN FILIALA MAILA ONA ARI DA ERAKUSTEN BIGARREN MAILAKO IPARRALDEKO MULTZOAN



Athletic B

Athletic B taldea da Aestatuko futboleko bigarren kategoriako euskal ordezkari bakarra. Filial zuri-gorria Iparraldeko Multzoan lehiatzen da, Lehen Mailan ibili berriak diren taldeen aurka borrokatuz, hala nola Coruñaiko Deportivo, Logroño edo Espanyolaren aurka; asmo handiko beste talde batzuen aurka ere gogor ari dira, noski. Roberto Pampinen taldeko jokalariek txapelketa gogor honetan lehiatzen

ikasten ari dira, gogoz saiatuz, lehen taldera jauzi egiteko. Halaxe egin dute dagoeneko batzuek. Ligaren erdia igaro ondoren, Lezaman dute gotorlekua zuri-gorriek, eta kanpoko partidetan hobeto jokatzen ahaleginduko dira, postuz postu gora egiteko.

BIZKERREK ETA AÑORGAK AUKERA DUTE LIGA NAZIONALEKO IGOERAKO POSTUAK ESKURATZEKO

Igoerako postuak eskuratzeko bidean Liga Nazionaleko 2. Multzoko talderik fidagarrienak direla erakusten ari dira Bolue eta Rezolako taldeak.

Txemi García

Bizkerre eta Añorga dira Lehen Liga Nazionaleko 2. Multzoko igoerako bi postuetarako hautagai nagusiak. Talde gehieneko



Bizkerre-Athletic C

maila bertsua erakutsi duten lehiaketa honetan, Bolueko eta Rezolako taldeek erakutsi dute erregularrenak direla lehen itzulian, bai golegile gisa eta bai defentsan. Argi dute biek ezin dutela adia galdu, Osasuna B atzetik baitute, hirugarren postuan.

Faboritoen atzean daude Athleticeko harrobia, hirugarren taldearekin, eta Realak, filialarekin. Biek ala biek Lezaman eta Zubietan kalitatezko etorkizuna dutela erakutsi dute.

Taulan beheraxeago daude, hobetzeko asmoz, San Ignacio, Arratia, Oiartzun, Aurrera Victoria eta Tolosa. Igorreko taldea buru izan zen ligan, hasierako saioetan, baina, gero, indarra galdu zuen.

Baina bada guztiak lortu duten zerbait: jaitzierako postuetatik urruntzea.

LIDER TOKIAN SENDOTU DA EIBARREN FILIALA EUSKAL LIGAN, LEHEN ITZULIAREN OSTEAN

Unbeka taldea izan da garaitua izan ez den bakarria ligaren erdialdera iritsita, gol gehien sartu dituen taldea izan da eta etsaiei tanto gutxien ematen dizkiena.

Txemi García

Pronostikoak betetzen ari da Eibar B, eta agintemakila eskuratu du oraingoz Euskal Ligan. Hasi aurretik, aurkariek argi ohartarazi zuten eibartarrak izango zirela beren lehiakide nagusiak, erakutsitako



Betiko Erandio-Eibar B

kalitateagatik eta ahalmengatik. Eta Borja Celayak entrenatzen dituen jokalariek bete dituzte iragarritakoak. Gogoz saiatu behar izan dute, aurkariek gogor lan eginarazi

baitiete. Liderraren emaitzen erregularitasunari eta eraginkortasunari erreparatuta, atzetik zetozen taldeek (Zarautz, Betiko, Anaitasuna edo Leioako) ikusi dute puntuen aldea nabarmen handitzen zela, eta ezin zutela ezer egin hori saihesteko. Bigarren postua eskuratzeko borrokatzea dagokie orain gainerakoei, Eibar akitzen ez bada behintzat, Nazionalera jauzi egiteko aukera emango balieke horrek, koefiziente onenaren bidez.

Aurtengo klub indartsuenen atzetik, sailkapeneko eremu epeleko postuak eskuratzeko lehia gogorra ari da izaten, talde asko baitaude eremu horretan puntu gutxiren aldearekin. Elorrio nabarmendu da, pribilegiozko tokiak eskuratzeko borrokan. Badirudi Alaves B, Pauldarrak, Añorga B, Bizkerre B, Hauskaitz, Goierri Gorri, Basauriko Kimuak eta Lakua taldeek, berriz, urte lasaia izango dutela. Bakarria jaitziko da, eta Aurrera Victoria B azken postuan dago.

ATHLETIC, ALAVES ETA EIBAR, LIDER DEN OSASUNAREN ATZETIK JARRAIKA

Gazteen Ohorezko Mailako lehen itzulian, Osasuna gelditu da lehen tokian. Eta zenbait euskal talde historiko ditu atzetik sailkapenean.

Raúl A. Collantes

Hiru euskal talde handi, Athletic, Alaves eta Eibar, daude Gazteen Ohorezko Mailako lehen tokietan, Osasunaren ondotik. Izan ere, neguko txapeldun izan da Osasuna, lehen 17 jardunaldien ostean. Bilbotarrek eta gasteiztarrek (bigarren eta hirugarren, hurrenez hurre) berdinduta amaitu zuten lehen itzulia, 34 puntu eskuratu baitzuten talde bakoitzak. Bi puntu gutxiago zituzten, berriz, eibartarrek. Kategoria horretan, Errege Koparako sailkatu ziren horiek guztiak. Ez zuen hala egin Realak, ohikoa dena baino emaitza apalxeagoak lortu baititu: 27 puntu eskuratu ondoren, hamargarren tokian iritsi zen ekuatorera, Danok Bat taldearen ostean (bederatzigarrena). Zenbakiak eta errendimendua hobetzen saiatuko dira guztiak ere bigarren itzulian. Bizkaiko Arenas taldea mailari eusten ahaleginduko den euskal taldeetako bat izango da; sentsazio onak piztu ditu orain arte jokaturako partidetan. Antiguokok ere hobeto ibiltzea espero du, beste urtebetez gazteen kategoria gorenean jarraitu nahi bailuke. Zailagoa du hori Getxo taldeak, nahiz eta pozik iritsi zen Kopako geldialdira, denboraldiko lehen partida irabazi ostean.



Athletic-Eibar

ATHLETICEK AURRERA EGIN DU ERREGE KOPAN, EIBARRI IRABAZI OSTEAN

Bizirik jarraitzen du Athleticcek gazteen kategoriako Errege Kopan, Lezaman Eibarri 2-1 irabazi ostean. Partida polita jokatu zuten bi euskal taldeek, eta itxura ona erakutsi zuten eibartarrek. Hala ere, bilbotarrek 0-1eko emaitza iraultzea lortu zuten, jokalaria bat gutxiago izanda. Alavesek ere Kopako partida izan zuen, eta 3-2 galdu zuen Osasunaren aurka; kanpoan gelditu zen, beraz. Final-zortzirenak otsailaren 27an izango dira.

VASCONIA, SANTUTXU ETA AURRERA NABARMENDU DIRA GAZTEEN LIGA NAZIONALEAN, IGOERARI BEGIRA



Santutxu-Antiguoko B

Hiru taldek hartu dute **Aurra** Ohorezko Mailara igotzeko lehian, filialen aurretik kokatuz. Vasconia, Santutxu eta Aurrera de Vitoria izan dira lehen hiru tokiak bete dituzten taldeak, lehen itzulia amaitu ostean. Horien atzetik, orpo orpo, Athleticen, Realaren, Alavesen eta Eibarren

bigarren taldeek amaitu zuten; hau da, eliteko euskal talde handietako taldeek. Vasconiak bigarrenarekiko bost puntuko koltxoiarekin bukatu zuen lehen itzulia. Santutxuk, berriz, partidarik galdu gabe amaitu zuen ligaren lehen erdia. Mailari eusteko borroka estua izango da 2021-2022 denboraldian, eta taldeen erdiak hor ibiliko dira. Hamargarren lekuan da Danok Bat B, eta azken postuan Galdakao, eta bien arteko aldea 11 puntukoa baino ez zen kanpainaren erdialdera iritsita, 16 partidaren faltan, alegia; eta 48 puntu daude jokoan.

SANTUTXUREN ETA LEIOAREN FILIALAK ETA BASCONIA, MAILA GORENEAN GAZTEEN EUSKAL LIGAN

2021-2022 denboraldiko ligako edizioa inoizko luzeenetakoa izango da, 20 talderekin, 38 jardunaldi izango baitira guztira lehiaketan.

Raúl A. Collantes

Aurrez aurre horren denboraldi luzea izanda, hogeitaz taldeek bi jardunaldi izan dituzte aste barruan, ligaren ekuatorera iritsi aurretik.



Laudio-Basconia

Gazteen Euskal Ligako sailkapenean, lehia bizian dabilta lehen postuetan lau talde. Lehen itzuliko azken partidan, Santutxu B taldeak Basconiari irabazi zion haren etxean, eta aurkaria harrapatu zuen; bi taldeek taularen lehen tokian amaitu zuten berdinduta, 44 punturekin.

Atzetik, puntu bakarrera, Leioa B. Zarautzek laugarren amaitu zuen, 41 punturekin. Bi filialen kasuan, Santutxu B da mailaz igotzeko aukerak dituena, bere lehen taldea, Nazionean, Ohorezko Mailara igotzeko borrokan burubelari ari baita. Sarrienakoen kasuan, ez dago argi zer gertatuko den, eta beren lehen taldeak Ohorezko Ligako bigarren itzulian zer egiten duen ikusi arte zain egon beharko du.

Antiguoko C-k ez du igotzeko aukerarik, baina errendimendu bikaina erakutsi du, Durango Kulturala taldeak bezala.

ATHLETIC ETA REALA NAGUSI KADETEEN SAIKAPENETAN

Pandemiak bete-betean eragin dio kadeteen mailako Euskal Ligari; 2021-2022ko denboraldi honetan, 22 taldek parte hartzen dute, eta bi azpitalde bereizi dira.

Raúl A. Collantes

Kadeteen kategoriako Euskal Ligako bi multzoetan, Athletic eta Realak izan dira nagusi irailean lehiaketari ekin zitzaionetik. Euskadiko bi talde handi horiek, gainera, lasai antzean dabilta, par-



Danak Bat-Bergara

OTSAILAREN 27AN AMAITUKO DA KADETEEN KATEGORIAKO EUSKAL LIGAREN LEHEN FASEA

Kadeteen Euskal Liga ohi ez bezalako formatuan ari da garatzen denboraldi honetan. Lehiaketa erregularra otsailaren 27an amaituko da, ligako 22 jardunaldiren ostean, eta gero, bi fase espezifiko jokatu dira, bata Ligako Txapelduna izendatzeko eta bestea mailari eusteko.

tidarik galdu gabe. Alaves dute atzetik zuri-gorriek 1. Multzoan, eta Antiguoko dator txuri-urdinen atzetik 2. Multzoan, zorrotza izaten ari den lehia honetan.

2. B MAILA: ZIERBANAKO TALDEA HASI DA EREINDAKO JASOTZEN, BERRITU ONDOREN; OTXARTABEK PODIUMERA IGO NAHI DU BERRIRO

Zierbenako taldeak aurrerapen handia egin du txapelketaren lehen zatian: 24 puntu lortu ditu guztira 15 saiotan.

C. Zárate

Zierbenak, jokalaria eta talde teknikoa berri ostean, aurrerapen handiak egin ditu txapelketaren lehen zatian, eta zazpi partida garaitu ditu, berdinketa lortu du hirutan, eta bost galdu ditu; 24 puntu bereganatu ditu guztira. Ilusio han-

diz ekingo dio orain bigarren itzuliari. Otxartanek, berriz, multzoko

lehen postuetan sailkatu nahi du berriro ere denboraldi honetan. Talde bilbotarrak plantilla sendoa du, kalitate handikoa, eta azken denboraldietako kirol-proiektuari eusten dio, Rodri Garcíaren eskutik. Denboraldia bikain hasi zuen, baina halako beheraldi bat izan zuen gero emaitzetan; dena den, hasi da bere onera etortzen. Bestalde, erdialdean kokatu da Lauburu Ibarra, eta igo berria den Mahastiak Labastida taldea, berriz, lehia bizian dabil beheko aldean, kategoriaz ez jaisteko.



Zierbena-Otxartabe

EMAKUMEZKOEN GORA BILBAO TALDEA, BIGARREN MAILAKO EUSKAL ORDEZKARIA

Viuda de Sainz Gora Bilbao taldeak proiektu berri bati heldu dio denboraldi honetan Bigarren Mailan, plantillan hainbat aldaketa eginaraziz eta Roberto Sanchezen zuzendaritzapean. Talde bilbotarraren proiektu berri honen bidez, gogor ari da lehiatzen galiziar aurkari indartsuen kontra, eta lehiaketaren lehen zatian, sailkapenaren erdi-behealdean kokatu da.

AFANTXO LIDER LEKUAN DA HIRUGAREN MAILAN, ETA LEIOA BURU DA EUSKAL LIGAN

Hirugarren Mailan, Afantxo lider da bere multzoan 39 punturekin, eta partida bakarra galdu du orain arte, bigarren sailkatuak, Laskorainek, bezala. Behealdeko postuetan dira Sasikoa, Lagun Onak eta Santurtzi, jaitsierari ihes egin nahian. Bestalde, Euskal Ligan, Leioa Ibaraki buru da nahiko berdinduta dabilen bere multzoan: 26 puntu eskuratu ditu, baina taldeko lehen tokietan sartzeko borrokan dabilzan talde ugari ditu atzetik, hala nola Ibarra, Otxartabe B, Soloarte, Goierri eta Aretxabaleta.



Kukuiaga-Afantxo

KUKUIAGA ETA JARRILLEROS INDARTSU, GAZTEEN OHOREZKO LIGAN

Gazteen taldeek beranduago hasi zuten lehiaketa, COVID-19agatik, eta lehen saioetan, nabarmendu egin dira Etxebarri eta Portugaleteko bi talde hauek.

C. Zárate

Liga-txapelketa behar baino beranduago hasi da denboraldi honetan gazteen Ohorezko Mailan, pandemia dela eta. Dena den, txapelketako lehen jardunaldi hauetan, eraginkortasun handia erakutsi dute Kukuiagak eta Jarrillerosek, eta multzoko lehen tokietan kokatu dira: lider izatera ere iritsi dira Etxebarrikoak, eta lehia estuan dabilta HCB La Amistad taldearekin, lehen postua eskuratu nahian.

Ildo beretik, Iturriondok ere balantze positiboa izan du hasiera



Jarrilleros

honetan, eta sailkapenaren erdiko eremuan kokatu da.

Behealderea begiratuta, berriz, Gora Bilbao eta Otxartabe ez dira hasi espero zuten bezala, eta sailkapeneko azken postuetan daude, nahiz eta birusaren eraginez zenbait partida bertan behera geratu izanak ere kalte egin dien. Hala eta guztiz ere, oraindik asko dago jokatze txapelketan.

SELEKZIOEN PLANGINTZA ETA TXAPELKETAK ATZERATZEA

Azaroaren 20 eta 21eko asteburuan jarduera itzuli zen gure selekzioentzat. 16 urtez azpiko eta 19 urtez azpiko taldekoen entrenamenduekin hasi zen, Mario Alberdi eta José Manuel Corraleche hautatzaileen agindupean. Pozik egoteko arrazoi bat da, selekzioekin egindako azken jarduerak 2020ko martxoan izan baitziren.

Horrela, 2022ko urtarriaren 8tik 15era Cádizeko San Fernandon jokatu beharreko selekzio autonomikoen txapelketak prestatzen hasi ziren.

Hala ere, pandemiaren egoera ikusita, Espainiako Selektio Autonomikoen Txapelketa eta gainerako selekzioen jarduerak atzeratu egin ziren, Euskadiko Federazioenak eta RFEFnak ere bai.



¿Cuánta seguridad necesitas?

No podemos asegurar que tu equipo gane este fin de semana...

En cambio podemos ofrecerte la tranquilidad de estar siempre protegido. Con Surne tienes el seguro que se adapta a ti y a tus necesidades para todo lo que quieres proteger.

- Vida
- Jubilación
- Dependencia
- Bajo diaria
- EPSV
- Autónomos
- Accidentes
- Ahorro
- Inversión

cmb
bizkaiko medikuen elkargoa
colegio de médicos de bizkaia
SEGUROS
ASEGURU-ARTEKARITZA S.M.
CORREDURIA DE SEGUROS S.L.

surne
seguros a pensiones

BILBAO
Cardenal Gardoki, 1
48008 Bilbao
944 792 200

SAN SEBASTIÁN.
Easo, 7 · 1ºD
20006 San Sebastián
943 430 798

'IRABAZI ARTE!': NESKEN FUTBOLARI BURUZKO TELESAIL BERRIA ETB1 EN

IRABAZI ARTE, neska gazteen futbol-talde bat oinarri duen telesaila da. ETB 1en estreinatuko da datorren ostiralean, otsailaren 11n, 21:00etan. Arene dugu protagonista, Bartzelona utzi eta Leoro herrixkara bizitzera etorriko den nerabea. Bizimodu berri batera egokitu beharko du: aitonarekin bizitzen moldatu eta lagun berriak egiten asmatu beharko du. Baina, Areneren erronka nagusia, aurreiritzien aurka kementsu borrokatzea eta emakumezkoen futbol-talde bat sortzea izango da, Leoroko lehenbizikoa. Protagonisten



harremana, familia, eta gaur egungo nerabeek dituzten arazoak eta erronkak.

bitartez, gaur egun gizartearen ematen diren hainbat gai landuko ditu telesailak; futbolearen eta kirolearen oro har bizi den giroa, emakumeen ahaldunduntzea, nerabeen eta gurasoaren arteko

OLATZ RIVERA, RICARDO DE BURGOS BENGOETXEA ETA HAIZEA CASTRESANAREN IGOERAK

Olatz Rivera, Ricardo De Burgos Bengoetxea eta Haizea Castresana pozik egoteko arrazoa izan ziren Epaileen Euskal Batzordearentzat.

SECOND kategoria lortu ondoren, Olatz Rivera CTako nazioarteko bigarren arbitroa izan zen. Ricardo De Burgos Bengoetxeak FIRST kategoria lortu zuen eta Haizea Castresana Emakumezkoen Lehen Mailara igo zen laguntzaile bezala. Gainera, Roberto Díaz Pérez del Palomar nazioarteko laguntzailea ere badugu.

ARANTZA GALLASTEGIREN DEBUTA RFEFKO HIRUGARREN MAILAN

Arantza Gallastegik debuta egin zuen RFEFKo Hirugarren Mailan, Barakaldo eta Durangoko Culturalaren arteko partidaren. Horrela, kategoriako partida bat zuzendu zuen Euskal Batzordeko lehen emakume epailea izan zen.

GOTZON PALACIOSEK AURRERA EGIN DU HONDARTZA-FUTBOLEAN

Gotzon Palaciosak aurrera egiten jarraitzen du hondartza-futboleko diziplinan. Las Rozaseko hondartza-futboleko mintegirako hautatu zuten 14 epaile nazionalak bat da Lau-dioko arbitroa.



JUDITH FRAIZ CATALANEK BERE LEHEN PARTIDA ZUZENDU ZUEN EMAKUMEZKOEN LEHEN MAILAN

Euskal taldearen areto-futboleko Hirugarren Mailako partida zuzendu zuen lehen emakumea izan zen Judith Fraiz izendatu zuten emakumezkoen areto-futboleko lehen partida zuzentzeko. Emakumezkoen Lehen Mailako Sala Zaragoza-CD Leganés partida zuzendu zuen 2021eko abenduaren 4an.

IKER DE FRANCISCO, NAZIOARTEKO LAGUNTZAILE BERRIA

Euskal Batzordeko laguntzaile Iker De Francisco izendatu zuten FIFAKo nazioarteko laguntzaile berri. Iker De Francisco Lehen Mailara igo zen 2015-16 denboraldian, 24 urterekin. Lehen Mailan 5 denboraldi eman ondoren, FIFAKo laguntzaile izendatu dute, eta nazioarteko epaileen taldean sartu da.

AÑORGA KKE ETA TOLOSA CF-EN MENDEURRENAK

Añorga KKE eta Tolosa ACF urte honetan haien mendeurrena ospatu duten bi taldeak dira. Gainera, Añorgak Donostiko Udalaren herritar merezimenduaren domina jaso zuen. Bi talde hauei, Burumendi FG eta UD La Merced batu behar zaie haien 75. urteurrenean.



DONOSTIÁN

31 DE AGOSTO, 16
Tf.: 943 429 390

NARRICA, 16
Tf.: 943 422 681

SAN JERONIMO, 17
Tf.: 943 420 919

AYESTARÁN



**JOYERÍA AYESTARÁN
CON EL DEPORTE
EUSKALDUN**

Ibéricos deluxe

Delicatessen

**ESPECIALISTAS
EN CORTE DE JAMÓN EN EVENTOS
(BODAS, COMUNIONES...)**



Tienda situada en
San Sebastián (Donostia)
Calle Narrika nº 31 Parte Vieja
Telf.: 943 423 849

www.ibericosdeluxe.com

SI NO SALES DE TU ÁREA, DATE UNA VUELTA.

MOCHILA DE REGALO*

TARJETA VISA NAUTALIA GRATIS*

MEJOR PRECIO* GARANTIZADO

FINANCIA TU VIAJE HASTA EN 10 MESES**

PRECIOS Y DESCUENTOS ESPECIALES* EN NUESTRAS VUELTAS PARA JUGADORES Y FAMILIARES

Las VUELTAS DAN MUCHA VIDA



NAUTALIA
Bidaiak

MÁS INFORMACIÓN Y RESERVAS EN TU OFICINA NAUTALIA MÁS CERCANA:

BIZKAIA BILBAO · Gran Vía, 75 · 946 424 348 | Pza. San Fco. Javier, 1 · 946 404 028 | **LAS ARENAS** · Mayor, 4 · 946 424 682 | **BASAURI** · Pedro Bilbao, 2 · 946 414 508

ARABA VITORIA · C.C. Boulevard · 945 103 097 | **GUIPUZKOA** IRUN · Pza. J. R. Agirretxe, 3 · 943 104 342 | **EIBAR** · Bidebarrieta, 18 · 943 108 960

RENERÍA · Av. Navarra, 63 · 943104 344 | **URRETXU** · Labeaga, 41 · 943 109 878